

L.H. 5. maila

## Beñat Mallona Anakabe

«Katuak gustuko ditut maitagarriak direlako»

# Katurno

## KATURNO



Bazen behin Katurno izeneko planeta bat.
Biribila zen buztan handi batekin.
Planeta hartan katuak bakarrik bizi ziren.
Denak urdinak ziren eta espazialak.
Katurnon beti eguna zen eta ez zuen euririk inoiz egiten,
katuei ez zaielako gustatzen uretan ibiltzea. Katu errege bat
zuten, ez zuena ezer egiten eta ladi-ladi zegoen. Bere izena
Brutus zen. Erregeak langile asko zituen: batzuk janaria
ziaten, beste batzuk arropa garbitzen ziaten eta beste batzuk bere
gaztelua garbitzen ziaten. Brutus erregeak sukaldari berezi bat zuen,
Palanga deitzen zena. Berak planeta guztiko pizarik goxoenak
prestatzen zituen, arrainez eginikoak.
Planetan erreka bat bakarrik zegoen gaztelutik oso urrun eta
Palangak egunero kilometro asko egiten zituen arrainen
bila joateko. Brutus erregeak ez zien ezer ematen langileei.

Katu langileek saloetatik ateratzen zuten jatekoa eta oso gauza gutxirekin bizi ziren. Bitartean, Brutus gero eta lodiago zegoen.

Egun batean erregeak esan zuen:

- Pizza jatearekin nekatu naiz! Tarta bat jan nahi dut, planetako arrain gozoenekin eginda. Tarta gozoena egiten duenari sari bat emango diot: Egunero 10 arrain bizitza osoan.

Albako planetako sukaldari guztiak tartak egiten hasi ziren.

Bakoitzak tarta bat ekarri zuen baina Brutus erregeari ez zitzaion bat ere gustatu.

Goiz batean Palangak erregeari esan zion:

- Nik prestatuko dizut planetako tartarik gozoena! Herrietarako errekako arrain guztiak batuko ditut.

Hurrengo goizean Palanga lanean hasi zen. Planetako tarta handiena egiteko makina bat egin zuen. Baina arrainak falta zituen.

Makina martxan ipini eta errekara joan zen. Katuman beti eguna zenez, arrainak eskutatuta egoten ziran erreka eta Palangak 3 egun behar izan zituen arrain guztiak batzeko.



Makina martxan zegoela ahaztu Zitraian eta makinak
eztanda egin zuen. Eztandaren ondorioz Katurnak buztana galdu
zuen eta bueltak emateari utzi zion. Katurna geldi geratu zen
eta zulo beltz batek irentsi zuen planeta guztia.

Baina aurretik katu urdin guztiak eta Palangak ihes egitea
lortu zuen. Brutus erregeak ezin izan zuen ihes egin oso
ladi zegoelako, eta zulo beltzak irentsi zuen.

Katu urdin guztiak planeta berri bat behar zuten bizitzeko
eta lurrera etorri ziren.

Ordutik aurrera, lurreko ume guztiek katu urdin bat izan
zuten eta ni palanga katuarekin geratu nintzen.









Laiene Basterretxea Gerrikabeitia
«Saski-baloira jolastea eta musika gustuko ditut»

# Lau lagunak

## LAU LAGUNAK

Baziren behin, lau lagun, Aitor, Patxi, Judo eta Lorea izenekoak. Aitor altua, argala, eta oso atsegina zen. Judo, argala, jostalaria eta beltzarana zen. Patxi baxua eta lodikotea, baina, oso jatorra zen. Eta Loreak landareak gustuko zituen. Orain munduko lagunik onenak dira, baina, lehen, txikiak zirenean, ezin zuten elkar ikusi. Hau da beraien historioa.

Egun batean, agendetan lanak apuntatzen zeuden eta horman jarri zuten eskua. Baina, konturatu orduko, beste mundu batean zeuden. Han 5 ordu egon ziren ibiltzen, baina, mundu errealean, 5 minutu soilik igaro ziren.

Laku bat ikusi zuten baina hurbildu zirenean, zuhaitzetako sustraiek harrapatu zuten Lorea. Beste hirurak Lorea askatu nahi zuten eta haiek ere harrapatu zituzten. Animalia arraro bat agertu zen eta askatu, eta dena lasai-lasai geratu zen.



-Hemendik irten behar gara!!!-esan zuen Patxik
-Bai, arrazoi osoa duzu. Hemen arriskuan gaude-erantzun zuen Aitorrek.-Hasi korrika!!!

Korrika hasi eta estropezu egin zuten laurak, baina, burua altxatu zutenean dinosauroen munduan sartu ziren.
-Hau harrigarria da!-esan zuen Aitorrek.
Hurbildu zirenean dinosauroekin jolasten hasi ziren. Oso dibertigarria izan zen, su-mendia laba botatzen hasi arte.
Aitor harrapatuta geldítu zen harri baten gainean laguntza eske.
-Oraintxe goaz!-esan zuen Judok lasaitu dadin.
Judok salto bat egin zuen eta Aitorri laguntzera joan zen. Bueltatzeko salto egin zutenean laba artera eta beste biak ere erori egin ziren.
Hura ez ze benetako laba, apur batean egon eta uraren mundura sartu ziren.
Mundu horretan urezko pertsonak ezagutu zituzten, baina, beraien etxeetara heltzeko laku bat gurutzatu behar zuten. Patxik ez zekien igeri egiten eta ito egin zen baina Lorea laguntzera abiatu zen, eta, besteak ere bai. Beraiek jakin ez arren hori zen mundu errealerako bidea.



Mundu errealera bueltatu zirenean Judori gelako arbela erori zitzaion gainera baina denen artean handik ateratzea lortu zuten. Denak poz- -pozik bukatu zuten

Bidaia horratan gauza bat ikasi zuten, besteen laguntza gabe ezin dela ezer egin eta besteei lagundu behar zaiela.

Egia ala gezurra bi begien artean sudurra




Laiene





Uxue Ibarguengoitia Magunagoitia

«Gitarra jotzea asko gustatzen zait»

# Aitona txirrindularia

Aitona txirrindularia

Bazen behin Pablo izeneko aitona bat. 80 urte zituen, baina, beraren zeregin gustukoena bizikletan ibiltzea zen. Txikitatik txirrindulari famatua izan nahi zuen. Aitona oso azkarra zen, txirrindulari ospetsu asko baino azkarragoa ere.

Egun batean, aldizkarian bere herrian lasterketa bat egingo zela irakurri zuen. Berehala apuntatzera joan zen. Han, bulegoan esan zioten bere adinarekin ezingo zuela ezer egin. Baina Pablok ez zien kasurik egin eta apuntatu egin zen. Bi aste zituen entrenatzeko. Euria egin arren aitona egunero jo eta su aritzen zen entrenatzen. Heldu zen lasterketa eguna eta aitona prest zegoen ahal zuen guztia egiteko. Han, 20 eta 30 urtetako gazteak zeuden. Pablok gazteak ikusi ondoren, pentsatzen gelditu zen eta amore emanez, ez kompetitzea erabaki zuen. Berantzako dena galduta zegoen. Baina bat-batean ikusle guztiak aitonari animatzen hasi ziren eta kontrako erabakia hartu zuen hau da, kompetitzea!!!

Danak prest zeuden. 5 minutu baino ez falta ziren 30 minutuko lasterketa hasteko. Lasterketan 50 lagun agertu ziren eta aitona Pablo 35. postuan hasi zen. 1,2 eta 3 aurrera! Lehen 15 minutuetan motel joan zen baina azkenean erritmo bizkor-bizkorra hartu eta lasterketa irabazi zuen. Saria eman ziotenean aitona poz-pozik zegoen.

Aurrerantzean aitona Pablo konturatu zen gaztea izan ez arren gauza handiak egin daitezkela eta inoiz ez dela amorerik eman behar. Urteak pasa eta Aitonaren betidaniko ametsa bete egin zen





Jon Eiguren Egiarte
«Lagunekin futbolera jolastea gustatzen zait»

# Etxe abandonatua

ETXE ABANDONATUA

Bazen lehin, orain dela urte asko, herri baten etxe misteriotsu bat. Etxea urte asko zeramatzan abandonatuta eta oso zaharra zen, horregatik inork ez zekien norena zen. Batzuek, etxean, mamuak bizi zirela pentsatzen zuten, beste batzuk munstroak bizi zirela, eta pertsona askok, gauez, zerbait ikusi zutela esaten zuten. Horregatik abandonatuen etxea deitzen zitzaion.

Egun batean, lagun talde bat: Mikele, Jone, Xabier eta Ander, etxearen alboan zegoen futbol-zelaian jolasten ari ziren eta bat-batean baloia, etxearen leiho bat apurtu eta barrura sartu zen. Pilota hartzera joan ziren. Etxearen atera heldu zirenean "Ez Pasatu" jartzen zuen kartel bat zegoen eta ezin zuten ez ateak ez leihoak ireki barrura sartzeko. Bat-batean leiho eta ate guztiak kolpe batez ireki ziren. Denak harrituta eta beldur apur batekin isil-isilik eta kontu handiz barrura sartzen hasi ziren.

Denak etxearen barruan zeudenean leiho eta ate guztiak, berriz bakarrik mugitu eta kolpe handi batekin zarratu ziren. Etxeko argi guztiak piztu ziren eta taldeko neska-mutilak oso beldurtuta zeuden. Orduan Jonek giltz bat topatu zuen eta atea irekitzen saiatu zen. Baina, konturatu zen, atea irekitzeko bi giltz behar zirela.

Besteei esan zienean, ikaratu egin ziren eta denak batera bigarren giltzaren bila joan ziren. Etxeko korridoreetatik abiatzen ziren bitartean konturatu ziren bueltak ematen ari zirela. Horregatik gelditzea eta atseden hartzea erabaki zuten. Konturatu ziren sartu ez ziren ate bat zegoela eta harantz joan ziren. Atea ireki zutenean froga desberdinez beteriko korridore bat zegoen.

Lehenengo proba, horma batetik zistu bizian irteten ziren geziak saihestea zen. Proba horretan, Xabierrek beldur asko zuenez esan zuen.

— Nik ezin dut hau egin, joan zuek eta ni hemen itxarongo dizuet.

Besteak arazo barik pasatu ziren eta hurrengo frogara abiatu ziren. Bigarren frogan, harri batzuetatik saltoka joan behar ziren behean zegoen putzura ez jausteko. Denok ondo egin zuten proba. Baina azkenean Ander jausi egin zen. Bere lagunak ezin zuten atera eta bakarrik segitu zuten.

Korridorea amaitutakoan ate handi bat zegoen. Atea ireki eta han zegoen giltza. Baina giltzaren alboan mamu antzeko pertsona bat zegoen. Mikelek Joneri esan zion:

— Zuk giltza hartu eta ni mamua entretenituko dut!

Eta hala izan zen. Jonek han zegoen soka bat hartu zuen eta bigarren probara abiatu ziren. Sokarekin Ander atera zuten. Giltza erabiliz handik atera ziren eta esan zuten ez zirela etxe horretara berriro sartuko. Inork ez zuen sinetsi neska-mutilek esaten zutena eta oraindik inor ez daki zer zer dagoen etxearen barruan. Eta ala bazan ala ez bazan sar dadila kalabazan.


EZ PASATU



L.H. 6. maila

## Ekain Barandika Gomez

«Futbolera jolastea eta irakurtzea dira nire zaletasunak»

# Gelako mahaia

Kaixo!!! Ni Peru naiz. Beno, egia esanez, ez dut izenik, mahai bat naiz eta. Bai, ondo entzun duzue, mahai bat. Zergatik hartu dudan izen hori? Ba, nire gainean eseri den ikasle zelebre baten izena delako. Zergatik nagoen hitz egiten? Ba, zuei nire istorioa kontatzeko.

Hasieran, zuhaitz bat nintzen. Pozarren bizi nintzen nire familiarekin mendian gizon batzuek aizkorekin etorri ziren arte.

-Hau, nahiko lodi dago! -esan zuen batek nigatik- Orduan, moztu eta azala kendu ondoren, kamioi batera bota ninduten zerrategira lehenengo eta ondoren lantegira eramateko. Geroztik ez dut nire anaiaren berririk izan.



Lantegian, tratamendu asko eta gero, mahai bihurtu eta bidaiatzera. Biltegi batean egun batzuk egon ondoren berriro bidaiatzera. "Eta orain, nora goaz?" -pentsatu nuen nik. Halako batean... kamioia gelditu zen. Ate erraldoi bat ikusten zen, eta haren gainean MERTZEDE IKASTETXEA jartzen zuela ikusi nuen. "Zer pagotxa! Hor bai egongo naizela ondo!" -pentsatu nuen. Ate aurrean Urdaibaiko margolana; txoriak, landareak... Bi gizonen artean hartu ninduten eta umez beteta zegoen jolastokira sartu ginen.

Zelako alaitasuna! Han entzuten ziren algarak! Batzuk saskibaloira jolasten, beste batzuk futbolera... Pozik jarri nintzen lekua ikustean, giro ona ikusten baitzen.

Eskailerak igo eta korridore bat zeharkatu ondoren, gela batera heldu ginen; polita, erosoa, zurezko hormekin... 6. maila zen. Lehenengo zutabeko bigarren filan jarri ninduten. Txirrina jo eta ume guztiak bultzaka sartu ziren klasera. Bat niregana etorri eta gainean eseri zen. Begi beltzak zituen, ilea, eguzkia bezain urre-koloreko, nahiko altua... Peru zuen izena. Horregatik hartu dut izen hori, nire gainean lehen aldiz eseri zenaren izena.



Geroztik, gelako gertaeren ikusle bihurtu naiz. Askotan barre egin dut ikasleen bihurrikeriak ikusita, baina tristetu ere besteetan beraiekin batera.

Egun batean, kalean aurkitutako katu bat ekarri zuten gelara ezkutatuta. Katua miauka hasi eta irakasleak ez zekien nondik zetorren soinua eta egoera zailan jarri zuten.

Beste batean hamster bat... Baina gehien errepikatu den tranpa lanak egin barik etorri eta tripako minaren aitzakia ipini kamomila hartzen joateko eta gelatik ihes egiteko da.

Tristuraz beteriko momentuak ere egon dira: nola txarrak atera ondoren negarrak ikusi ditudanean edo haserretzearen ondorioz tristetu egin direnean.

Urte hauetan ikasleen artean egon ondoren, oso atseginak, maitagarriak eta beraien artean bizitzea onuragarria dela uste dut, nahiz eta batzuetan bihurrikeriekin arazoak sortu.

Eta zu, nolako ikaslea zara?







Jon Foruria Lasa
«Hondartzara joatea gustatzen zait»

# Zertaz kexa gaitezke?

Zertaz kexa gaitezke?
Kexatzerik badugu?

Urtero bezala, gaur egun berezia da niretzat eta nire familia osoarentzat. Baita gabon berezi hauek ospatzeko aukera ditugun guztiontzat ere. Etxe osoa jendez beteko zaigu eta amak goxo-goxo prestaturiko jakiak dastatzeko aukera izango dugu. Horregaitik gaur apenas bazkaldu dut. Amak prestaturiko; azalorea, makilaua, otarrainak, intxaursaltsa, konpota... eta noski, aitak Gernikan harrapaturiko "angulak" dastatuko ditugu. Afaltzen, nire Mendatako lehengusua den Xabierren ondoan eseriko naiz. Xabierrek ni baino lau urte gehiago ditu eta ez du ezertxo jaten.

Azkenean bere "Sobrak" ere nik neuk jaten ditut. Irrikitan nago gaueko bederatziak izateko! eta... ordu erdi besterik ez da falta! Amatxo goizetik ari da jota ke sukaldean lanean. Aita egurra mozten ari da sutondorako. Bertan kontu-kontari aritzen gara amonaren eta izeko-osaben istorioak eta gertakizunak bergogoratzen. Barreak botatzen ditugu lehengusu-lehengusinen artean, askotan txikitako bihurrikerien bat edo beste kontatzen dute osaba izebek.

Argazkien albuma atera eta banan-banan pasatzen ditugu argazkiak. Bertan aitona eta amonaren ia bizi osoa grabaturik dago. Beraien gurasoen argazkiak ere badaude, txuri beltzean. Birramona eta birraitona lehengusu-lehengusinak izan ziren eta nahiz eta garai haietan zaila izan, ezkontzea lortu zuten. Amona bere familiari buruz hitz egiten hasten denean erabat galtzen naiz. Ueba arreba asko izan ziren eta Gernikako bonbardaketaren ondorioz Argentinara batzuk eta beste batzuk Idahora eta Boisera joan behar izan zuten. 75 urte pasa dira eta ez dugu beraien berririk. Duela lau urte irakasle batek, Jon nire anaiari eta bere gelakideei Gernikako bonbardaketari buruz lantxo bat egiteko agindu zien. Gogoan dut aitonaren eta amonaren etxera joan eta lantxoa egiten ari zela aitonak botatako negarrak. Oroitzapen latzak izan ziren guztientzat. Bere aitari buruz hitz egiten zuen behin eta berriz eta Astrako sirena jo zuen uneaz ere. Zaratak, negarrak, goseak, heriotza,... burura etortzen zitzaizkion une oro. Aitonak desgrazia eta pobrezia bizi izan zituen gertu-gertutik eta berak zioenez janariaren musutruk lan egiten zuten.

Beraz, zertaz kexa gaitezke? edo kexatzerik badugu?
Mahaia ipintzeko esan dit amak eta egia esan horixe da gehien gustatzen zaidan lana, kaxatik, urtean behin erabiltzen dugun mantela atera du amak. Bertan gure abizenen inizialak ageri dira bordaturik eta izugarri gustuko dut mantela.

Platerak ipintzen hasi naitzerean amak aitonari ere jartzeko esan dit.

Orain dela bi urte hil zitzaigun aitona baina urtero mahaian aitonak bere lekutxoa du eta baita geure bihotzean ere. Mahaiaren aldamenean berak gogoko zituen betiko txapela eta mizperoz eginiko makila jarri dizkiot...

Bederatziak laurdengutxi dira eta dagoeneko amonak, izeba osabak eta lehengusuak etartean daude. Beraien hotsak nabari ditut.

Urtero bezala, gaur ere egun berezia da niretzat eta nire familia osoarentzat.





June Zameza Azurmendi

«Niri gehien gustatzen zaidana lagunekin eta familiarekin egotea da. Baita irakurtzea ere»

# Joneren baratza

## JONEREN BARATZA

Bazen behin, Jone izeneko baserritar bat. Bere baserria oso handia zen, eta hainbat animalia zituen, bakoitza bere izenarekin, Petra oiloa, Txiki txakurra, Milo eta zuri katuak...; merkatuan saltzen zituen barazki eder eta ugariko baratza ere bazuen, bertan letxugak, piperrak, tomateak... zituen.

Goiz batean, Jone merkatura joateko baratzera joan zen barazkien bila; baina... baratzean ez zegoen ezer bi piper baino ez. Horregaitik merkatura ez joatea erabaki zuen Jonek. Gertatutakoa oso arraroa zenez, herritarrek Joneren etxera joatea pentsatu zuten. neskari zerbait gertatu zitzaiolakoan. Herritarrak heldu zirenean, Jone animaliekin zegoen, eta herritar batek galdetu zion:

—Zer gertatu zaizu gaur merkatura ez joateko zure barazkiekin?

—Ez dakit zer gertatu den. Gaur goizean jaiki naizenean, ikusi dut baratzean ez zegoela ezer, bi piper baino ez.

Eta herritarrak erantzun zuen:

—Bueno, ba goazen zer gertatu den ikertzera!!!

Denak baratzera joan ziren, bertan zer ikusiko eta... zomorro mordoa ikusi zuten. Beste herritar batek esan zuen orduan:

—Nik bi lagun berezi ditut, Mr Potato eta Snra Patata, edabe magikoak egiten dituztenak, eta zure baratza ere beraiek konpon ahal dutela uste dut. Goazen beraiengana!!!



Hori entzutean, herritar guztiak Mr Potato eta Snra Patatarengana joan ziren. Gertatutakoa kontatu eta edabe magikoa prestatzen hasi ziren etxeko lorategian. Lapiko handi bat hartu, belarrak, hauts batzuk eta ura botata lortu zuten edabea.

Segituan edabea hartu eta Joneren baratzera joan ziren. Berton edabea lurrera bota eta minutu bat igaro ostean... zomorro guztiak desagertu eta lurretik hainbat landare agertzen hasi ziren.

Hurrengo goizean, Jone goizetik jaiki, animaliei jaten eman eta baratzera joan zen. Sinezteziна, baina ... barazki ederrez beteta ikusi zuen. Otzaratxoetan jarri eta han joan zen poz-pozik merkatura bere barazkiak saltzera. Merkatuan barazki guztiak saldu zituen. Etxera heldu zenean, gogoratu zitzaion Mr Potatori eta Sra Patatari bere baratzeko barazki batzuk eta eskerrak eman behar zizkiela. Beraien etxera joan, eskerrak eta barazkiak eman eta, baserrira bueltatu zen. Eta hortik aurrera Jonek barazki ederrak izan, eta merkatuan egunero saltzen zituen denak.

Eta hau egia bazan edo ez bazan sar dadila kalabazan eta irten dadila herriko plazan!!!!

June Zameza



Iker Torriko Arriandiaga
«Futbola eta surf egitea maite ditut»

# Patxi, Afrikatik etorritako ikasle zintzoa

Patxi,

Afrikatik etorritako ikasle zintzoa

Bazen behin Patxi deitzen zen hamabi urteko mutil musulman bat. Gernikan bizi arren, Afrikatik etorritakoa zen eta bere jatorrizko izena Mirivik zen. San Fidel ikastolan ikasten zuen eta oso ikasle ona zen. Irakasleek gelako ikaslerik onena zela esaten zioten, baina gelakideak burlaka aritzen zitzaizkion afrikarra eta musulmana izateagatik. Patxiren bizitza tristea eta aspergarria zen. Ez zuen lagunik, ez bakardadean dibertitzeko aparteko zaletasunik. Hala ere, etxera heltzen zenean ez zien gurasoei horrelakorik kontatzen haiek ez nahigabetzeko.

Goiz batean, ikasle berri bat etorri zen bere gelara. Jolasordua heltzean, mutil hura bazter batean eseri zen bakardadean. Patxiri lotsatia zela iruditu zitzaion eta bere parera joanda honela esan zion:

-Kaixo, ni Patxi naiz. Eta zu?

- Ba... Ni... Mikel - erantzun zion nahiko mesfidati Patxi etorkina zela ikustean.

- Bistakoa da zu ere ez zarela herri honetakoa, ez da hala?

-Hala da, bai. Ni bilbotarra naiz, baina gurasoak lanera hona etorri direnez, familia osoa bertan biziko gara aurrerantzean -azaldu zion Mikelek.
-Nire familian ere antzerako egoeran gaude. Nire gurasoak ere lanaren bila etorri ziren, baina askoz ere urrunagotik- Gaineratu zuen Patxik.
-Eta nondik etorri zinen bada?
-Oraindik mutiko txikia nintzela, gurasoek Marokotik alde egitea erabaki zuten hango bizi baldintzak gogorrak zirelako. Hasieran Parisera joateko asmoa zuten. Baina harako bidean gindoazela, hemen geratzea pentsatu zuten, bertan bizi den beste familia marokoar bat ezagutu zutelako- azaldu zion Patxik.
Hizketan jarraitu zuten jolasordu osoan biak bakarrik eta Patxik Mikelen konfidantza eskuratu zuen. Arratsaldean, klaseak bukatu ostean, berriz ere Patxi Mikeli hurbildu zitzaion esanaz:
-Nik ez dut hemen lagunik. Ikaskideek burla egiten didate etorkina naizelako eta baztertu egin naute.
-Nik ere ez dut hemen zu besterik ezagutzen. Beraz, lagunak izan gaitezke- erantzun zion Mikelek.
Hori entzutean poz handia hartu zuen Patxik eta eskolako lanak elkarrekin egitea proposatu zion. Mikelek asko eskertu zion laguntza ikasle bezala nahiko traketsa baitzen.
Lanak amaitu ondoren, Urbietako polikiroldegira joan ziren Mikelek etxean hartutako baloiarekin. Hara iristean, zelai txikian futbol entrenamendua burutzen ari zirenen artean euren gelakide batzuk zeuden. Patxi eta Mikel zelai bazterrean zegoen

porteria baten jolasten hasi ziren. Entrenamendua amaitu ondoren, gelakideak begiratzen geratu zitzaizkien eta Mikel portero trebea zela ikusi zuten. Hurrengo egunean futbolera jokatzen zuten gelakideek euren taldean jokatzeko proposatu zioten Mikeli eta hark erantzun zuen.

- Patxirekin bada bai, bestela ez.

- Ondo da, bihar 17:00etan da entrenamendua - erantzun zion gelakide batek. Biharamunean, hor azaldu ziren bi lagunak eta, froga batzuk egin ostean, entrenatzaileak biak onartu zituen taldean. Asteak pasatu ahala, taldeko jokalari onenetarikoak bihurtu ziren Mikel eta Patxi eta partidoak bata bestearen ondoren irabazten. Zapatu batean, lehiaketako finala 1-0 galtzen zihoazenean, Mikelek penaltia geratu zuen eta Patxik 2 gol sartu zituen. Horrela finala irabazi zuten Patxiri eta Mikeli esker. Aurrerantzean futbol taldean zein ikastolan errespetatua eta onartua izan zen Patxi.


TXAPELDUNAK
Kirolbet.es
Kirolbet.es
PATXI
10
GERNIKA CLUB
MIKEL
1
GERNIKA CLUB

GERNIKA LUMO

gure sustraiak

**GERNIKA-LUMOKO UDALA**

Hezkuntza Saila

Euskera Zerbitzua

gernika-lumoko euskara zerbitzua

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

**KULTURA SAILA (HPS)**

BFA
DFB

Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia